

ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-ERASOEN BIKTIMENTZAKO ORIENTAZIO SOZIALA ETA LEGALA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Krisi edo zaugarritasun egoeran dauden familiei laguntzea

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Gizarte-zerbitzu espezializatua, tratu txarren edo sexu-erasoen biktima diren pertsonen arreta soziojuridikoa eta psikosoziala ematen diona, genero-ikuspegitik eta indarkeriaren biktima diren emakumeen ahalduntzea bultzatzen duen ikuspegiarekin ([2.7.5 fitxa](#)). Era integrarean lantzen dituzte gizarte- eta hezkuntza-arloko eta esku-hartze psikosozialaren eta, hala badagokio, esku-hartze terapeutikoaren beharrak, bai eta tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen ondoriozko aholkularitza soziojuridikoaren beharrak ere. Bere helburuak honako hauek dira:

- Biktimak babestea.
- Biktimei, eta haiekin bizi diren beste pertsona batzuei, eragindako kalte traumatikotik errekuperatzen laguntzea.
- Emozionalki errekuperatzen eta autoestimua hobetzen laguntzea, distantzia hartuz eta erasotzaileen banaketari aurre egiteko beharrezko gaitasunak eskuratuz.
- Prozeduretan laguntza soziojuridikoa jasotzea eta/edo tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko gatazkak arintzea.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

- Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako egintzen biktimak,
- Biktimarekin bizi diren pertsonak, adin mugarik gabe.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Ez da inolako administrazio-baldintzarik eskatuko, biktima izaeratik harago.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan

Aurkitu zure udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzua:

Informazio gehiago:

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako informazio eta arreta zerbitzu espezializatua

Telefonoa: 900 840 111

- 24 orduz, asteko 7 egunetan.
- Ez du arrastorik uzten fakturan.
- Eskuragarria 51 hizkuntzatan.
- Entzumen- edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonentzako zeinu-hizkuntzako interpretea.

[Web orrira sartu](#)

- [Indarkeria matxistaren biktimentzako orientazio soziala eta legala Araban](#)
- [Indarkeria matxistaren biktimentzako orientazio soziala eta legala Bizkaian](#)
- [Indarkeria matxistaren biktimentzako orientazio soziala eta legala Gipuzkoan](#)

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)